

San Telmo Museoa eta Globernancek online egingo dute 2020ko European Dialogues zikloa maiatzean, koronababirusaren krisiaz ikusegi ezberdinetatik aritzeko

Hiru saiotan Europar Batasunaren herritarren pertzepzioari, zientziaren Europari eta emakumeen Europari buruz hitz egingo dute aditu ezberdinek, online,

maiatzaren 7an, 14an eta 21ean

"Europa ez da behingoz egingo, ezta obra orokor batean ere: errealizazio zehatzei esker egingo da, lehenik eta behin izatezko elkartasuna sortzen baitute." **Robert Schuman**

Maiatzaren 9an Europaren Eguna ospatuko da Robert Schumanen hitzaldia gogoratzeko, Bigarren Mundu Gerrak eragindako kalteak gainditzeko laguntzeko proiektu europar baten oinarriak jarri zituena. 70 urte igaro direnean, lan eskerga eta aurrerapen esanguratsuak egin dira, baina honelako proiektu handi batek etengabeko azterketa eskatzen du, eta egun duen balioari eta aurre egin beharreko erronkei buruzko eztabaida.

Horrela, bada, aurrekoetan bezala, aurrean ere **European Dialogues** zikloarekin jarraituko dugu, Europari eta bere erronkei buruz San Telmo Museoa eta Globernancek antolatuta. Aurrez aurreko jarduera guztiak bertan behera geratu direnez koronababirusaren ondorioz, oraingo honetan egoera berrietara egokitu eta formatu birtualean burutuko ditugu.

Saioak eta formatua

Hiru saio egingo dira maiatzaren 7an, 14an eta 21ean, gazteleraz, 18:00etan hasita, denbora errealean eta interneteko plataforma baten bitartez. Plataforma horrek jendearen parte-hartzea ahalbidetzen du, ohi bezala. Zuzenean parte hartu nahi dutenek alde aurretik eman beharko dute izena. Museoko youtubeko kanalaren bidez ere jarraitu ahal izango da, baita museoaren webgunean eta Globernance-n ere, izena eman beharrik gabe, baina kasu honetan ezin izango da zuzenean parte hartu.

Izena emateko aukera jadanik irekita dago, honako estekan:
https://us02web.zoom.us/webinar/register/WN_ILSB6v4KQ1isl4WCb18SxQ

- Maiatzaren 7an. **La Europa de la gente**

Koronababirusaren krisia dela eta, aurreko krisialdi ekonomikoan bezala Europar Batasunaren gehiegizko esku-hartzea deitoratu ordez, kritikak esku-hartze eskasera bideratu dira. Horrek esan nahi du Europako herritarrek ulertzen dutela, inplizituki behintzat, EB krisi mota hori tratatzeko instantzia bat dela? Lehen erreakzioak kritikak izan diren arren, ondoriozta dezakegu krisi honen ondorioetako bat Europaren politizazioa izan dela?

Alberto Alemanno: Jean Monnet Komunitate Zuzenbideko katedraduna Parisko HECen. Bruselan egoitza duen The Good Lobby enpresa zibikoaren sortzaileetako bat da.

Daniel Innerarity: Filosofia Politikoko katedraduna, "Ikerbasque"ko ikertzailea Euskal Herriko Unibertsitatean. Gobernantza Demokratikoaren Institutuko (Globernance) zuzendaria.

- Maiatzaren 14a. *La Europa de la Ciencia*

Osasun-krisiak balio handiagoa eman dio zientziak eta adituek prebentzioan, aholkularitzan eta krisialditik irtetean duten zereginari; izan ere, ezagutza funtsezkoa da mota honetako krisialditan. Errebalorizazio hori iragankorra izango da, ala zientziari arreta handiagoa eskainiko diote gobernuek eta iritzi publikoak hemendik aurrera?

Cristina Garmendia: Biologia molekularrean doktorea. Europako Batzordearen aholkularia EBko etorkizunerako I+Gari buruzko goi-mailako taldean, IX. Esparru Programa (2021-2027) diseinatzeko gomendioak egin dituena.

Mikel Mancisidor: Nazioarteko Harremanetan doktorea. Zientziari eta Giza Eskubideei buruzko Behaketa Orokorrerako NBEko DESC Batzordeko kontalaria eta Zientziarako Giza Eskubiderako Nazioarteko Institutuko presidentea.

Juanjo Álvarez: UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna. Ikerbasque, Zientziarako Euskal Fundazioko patronoa. Gobernanceko idazkaria (Gobernantza Demokratikoko Institutua).

- Maiatzaren 21a. *La Europa de las mujeres*

Krisi honen lehen hilabeteetan, emakumeen papera hainbat zentzutan nabarmendu da. Zaintzako lanbideen feminizazioa eztabaidatu nahi dugu, baita konfinamenduak lanbide horietan dituen ondorioak eta hilkortasun txikiagoa izatea ere. Krisi honek nolabait aldatuko al du emakumeek gizartean duten posizioa eta kausa feminista?

María Eugenia Rodríguez Palop: Legelari espainiarra, Zuzenbidearen Filosofiako irakaslea Carlos III Unibertsitatean, Giza Eskubideetan espezializatua. EBko Emakumeen Eskubideen eta Genero Berdintasunaren Batzordeko eurodiputatua eta presidenteordea.

Maria Silvestre: Soziologoa eta Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktorea. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendari ohia. "Deusto valores Sociales" ikerketa-taldea zuzentzen du. Talde horrek Espainia ordezkatzeko du Balioen Europako Inkestan.

Daniel Innerarity: Gobernantza Demokratikoaren Institutuko (Gobernance) zuzendaria. Filosofia Politikoko katedraduna, "Ikerbasque" ikertzailea Euskal Herriko Unibertsitatean.

El Museo San Telmo y Globernance celebrarán online el ciclo European Dialogues de 2020, que abordará la crisis del coronavirus en Europa desde distintos puntos de vista

Serán tres sesiones en las que se hablará sobre la percepción de la ciudadanía de la Unión Europea, la Europa de la ciencia y la Europa de las mujeres, online, los días 7, 14 y 21 de mayo

"Europa no se hará de una vez ni en una obra de conjunto: se hará gracias a realizaciones concretas, que creen en primer lugar una solidaridad de hecho." **Robert Schuman**

El próximo 9 de mayo se celebra el Día de Europa en recuerdo del discurso de Robert Schuman, que puso las bases de un proyecto europeo para ayudar a superar los estragos causados por la Segunda Guerra Mundial. Han pasado 70 años de intenso trabajo y significativos avances pero un proyecto de tal envergadura requiere un análisis permanente y un debate sobre su validez en la actualidad y sobre los desafíos a los que nos enfrentamos.

Así pues, como en ocasiones anteriores, este año continuamos con el ciclo *European Dialogues* sobre Europa y sus desafíos organizado San Telmo Museo y Globernance. Dada la suspensión de todas las actividades presenciales debido al coronavirus, en esta ocasión nos adaptamos a las nuevas circunstancias y lo ofrecemos en formato virtual.

Sesiones y formato

Se realizarán tres sesiones los días 7, 14 y 21 de mayo, a las 18:00, en castellano, en tiempo real y a través de una plataforma de internet que posibilita la participación del público, como es habitual. Para aquellas personas que estén interesadas en la participación directa será necesaria la inscripción previa. Se podrá seguir también a través de canal de youtube del museo, así como en la página web del museo y en la de Globernance, sin necesidad de inscribirse, si bien en este caso no se podrá participar de forma directa.

La inscripción puede realizarse ya en el siguiente enlace: https://us02web.zoom.us/webinar/register/WN_ILSB6v4KQ1isl4WCb18SxQ

-7 de mayo. *La Europa de la gente*

Como motivo de la crisis del coronavirus, en vez de lamentar una excesiva intervención de la UE como en la anterior crisis económica, las críticas se han dirigido a una insuficiente intervención. ¿Significa esto que la ciudadanía europea entiende, al menos implícitamente, que la UE es una instancia de tratamiento de este tipo de crisis? Pese a las críticas antes las primeras reacciones, ¿podemos deducir que uno de los efectos de esta crisis ha sido la politización de Europa?

Alberto Alemanno: Catedrático Jean Monnet de Derecho Comunitario en HEC de Paris. Cofundador de *The Good Lobby*, empresa cívica con sede en Bruselas.

Daniel Innerarity: Catedrático de Filosofía Política, investigador «Ikerbasque» en la Universidad del País Vasco. Director de Gubernance (Instituto de Gobernanza Democrática)

-14 de mayo. *La Europa de la ciencia*

La crisis sanitaria ha revalorizado el papel de la ciencia y de los expertos en la prevención, en el asesoramiento y en la salida de crisis de este estilo en las que el conocimiento juega un papel fundamental. ¿Será esta revalorización un episodio pasajero o le espera a la ciencia una mayor atención por parte de los gobiernos y la opinión pública?

Cristina Garmendia: Doctora en Biología molecular. Asesora de la Comisión Europea en el Grupo de Alto Nivel sobre I+D para el futuro de la UE que ha formulado las recomendaciones para el diseño del IX Programa Marco (2021-2027).

Mikel Mancisidor: Doctor en Relaciones Internacionales. Relator para la Observación General sobre Ciencia y Derechos Humanos del Comité DESC de la ONU y Presidente del Instituto Internacional para el derecho humano a la Ciencia.

Juanjo Álvarez: Catedrático de Derecho Internacional Privado de la UPV/EHU. Patrono de Ikerbasque, Fundación Vasca para la Ciencia. Secretario de Gubernance (Instituto de Gobernanza Democrática).

-21 de mayo. *La Europa de las mujeres*

A lo largo de los primeros meses de esta crisis el papel de las mujeres ha destacado en diversos sentidos. Queremos debatir la feminización de las profesiones del cuidado, las repercusiones del confinamiento en ellas así como el hecho de que hayan tenido una menor mortalidad. ¿Modificará en algún sentido esta crisis la posición de las mujeres en la sociedad y la causa feminista?

María Eugenia Rodríguez Palop: Jurista española, profesora de Filosofía del derecho en la Universidad Carlos III, especializada en Derechos Humanos. Eurodiputada y vicepresidenta de la Comisión de Derechos de las Mujeres e Igualdad de Género de la UE.

María Silvestre: Socióloga y Doctora en Ciencias Políticas y Sociología. Ex directora de Instituto Vasco de la Mujer-Emakunde. Dirige el Equipo de Investigación "Deusto Valores Sociales" que representa a España en la Encuesta Europea de Valores.

Daniel Innerarity: Director de Gubernance (Instituto de Gobernanza Democrática). Catedrático de Filosofía Política, investigador «Ikerbasque» en la Universidad del País Vasco.